

TXEKOSLOBAKIA

BRNO'KO PERIA ZABALDU DA

Urtero, Agorraren asieran zabaldu oi da Brno'ko Belgia-Peria. Aurten-go dela Agorraren 8'itik 17'ra erabakia zegoen. Gerora sortu diran eta guzian gogotan dauden gertari batzuegatik, etzan deiak zion egunetan zabaldu al-zan Erakustegi orri.

Baia andik egun gutxi barru, Brno'ko Erakustegi zabaldu izan da jendearentzat. Aitzakoen izan da gauzak bere onera erakartzeko Txekoslovakia egin bear izan duan lan ikaragarria.

Kanpoko gudurosteak beartuta, sortu dan lur-zapatzea, lur-jabeegitea ta arean azpian egon bearraren indarrak, ezin izan du erriak bere onera bihurtzeko zeukan gogoa. Pake-itxura batera lristea izan baita txeko guzien borondate kamontsua.

Peria zabalteko, adibidez, gudari erusitarrak eta tankeak, kalatirik kendu-arazi egin bear izan dituzte. Txekoslovakia'ko bigarren erria dan oriatik, izkatuta egin bear izan dituzte Erusali'ko zapaltzaileak. Baia erusitarrak beren zemala bota diote, inork erusitarren aurka itilluririk sortzen ba-du, alegia, jorraketa berealaxe elduko dala, ta Erakustegia itxi-arazi egingo dutela. Eta zerbat izan da oraingotxe: langile txekoak, adibidez, U. R. S. S.'ko etxolarako etorri diran salgaiak, ez dituzte eraman izan nai beren tokira.

Etorrizun larrta datoriko Txekoan diruketa-arzaroari. Comecon'i bere ordain-egiria kitatzeko, sobietikoen eskuldearekin sal-erosketa berritzeko, alegia guztiak egin bearko dituzte; ordu berean Sardaldekoekin baren artu-emanak piktortzeko. Txekoslovakia, Europa da noski, ta Europa'ren bearean arkitzen da, bizi nai ba-du. Ta txekotarren sorkariak ekarriko dute Europa-giroa, gudurostean zapalatak nastu dutena.

Txekoslovakia Espainia'rekin duan artu-emans, esate baterako, egunetik egunera ugaltzen ari da. Eta ordaintzeko orduan Espainia da irabazten atera dana. Ezta, beraz, arritzekoa Espainia'ko salerosleak Erakustegi aretan agertzea. Ta, nola ez, gelinek ain zuzen eskaldunak.

Txekoslovakia, neke-min eta itxaropen artean, bere bizia pizten ari da. Lasaitzearen aurrerapena, gertarain indarrez aitzakto da; bertako premien arian. Eta orri gertatzen ba-da, ango jendearen kemen, gogo-beratasun eta abertzaletasunaren ekifioz lristiko da guzia.

KULTURA

Bear bada artikulo au ez da sasoi agertuko, baño dana dala, berdin zela, Kultura gaiak noiz nai erabili ditzenken dira. Zoritxarez ez ditugu bear ainbat azalzen.

Zarazuko kultura taldeak eralduta, eta bertako Ayuntamentuaren itzalpean, berebiziko lizaldiak entzungo dituzte gure kostako erri zoragarrian.

Zaragüeta, oriotar pilosopo pamatu, Albea sendalaria, Freijo, Salamankako profesorea, Jose Maria Iribarren, Naparruko eskritore bikaina, eta aitzkenik, Carlos Santamaria, gure pentsalari eta adixkide biotzekoa.

Izen oek danak alkatu eta erri batera eramatea ezda txantxetako lana. Gizon guziz asurtaria bear da lan orretarako. Zorionez Zarautzen badauketa idealista aukeratu orri. [Ai erri bakoitzean Emilio Olazabai jauna bezelako bat biziko balitz]

Udara aizenengo egunian ari naiz artikulo au idazten. Udazkenean gaude. Negua aurki. Urte sasoirik onena gure zluadeta ta erriatan kultura gaiak aitzertzeko.

Baiañ ortarako giroa sortu bear nai ta nalez. Giroa. ¿Bai al-dago gure erriatan kultura girorik? Erantzun bezate erri bakoitzeko gazteak.

Galdera orri besteren bizkarrera gañortzea ¿ez alda problema zearka erabiltzeko modu bat? Zuk ¿zer diogu zurekiko? — galde dezakete irakurleak.

Neri ltruditzen kultura egarri oso gutxi daukatela jenerallan garuko gazteak.

Badietxe erru orri gazteena bakarra ez izatea. Ikusi egin bear notarrañ zanpatzen dituzten gazteak gaurko

esturio asmoak. Aizkenerako nazkatu egiten dituztela esango nuke. Naskatu...

Baiañ egiten dan baño geiago egin ditekela deritzait. Deportek daramazki gure gazteen ardura geline-tsuenak. Kiriolari ere berea eman bear zaiola ez det ukatuko, baiañ deportearekin batean kultura gaiak ere erabili ditekela. Bakoitzari berea. Ez orain gertatzen dana. Deporteari geiegi, eta kulturari ezer ez.

Kultura galetan nai izatea añakorik ezda. Ekin egin bear. Ekin. Bidean jarri. Lenengo pausoko bigarren pausoa urratzen du beti. Ekindako bideari jarrai.

Kulturak —bide zuzeneko kulturak— aundituko gal-tu. Gure gizatasuna obeto egokitu. Bestearen surretako osatu.

Geure izakeraren jabetasunera irixteko bear be-arrakea degu kultura. Arnasa bezin bearrezkoa.

Ba dira kultura errebita batzuek gure artean, arpi-dedunaren listak urte bukaeran ipintzen dituztenak. Lotsatu egiten naiz, lotsatu, lista errenkada oiek ikus-tean. Zehien gutxi errebita oiek artzen dituzten. Eta ez erantzun gertatirik diranok. Goi mallako errebitak izan arren, merkeak dira oso.

Izentegi oietan izanbet erri lotsagarri gelditzen di-ran. Ez dago erri oietan lotsa aundirik.

Burua puztu egiten zaigu gero edozein indarkerikin. ¿Zorioneko gure indarrearen arrokeria!

Jose de Arteahe



KEZKAK

AURRAK ETA ESKOLAK

GAZTANAGA'K

Urrillarekin batera, ikas-urtearen aslerra. Aurtxoak eta gaztetxoak be-rriz ere beren eskolatera joaten asiko dira. Garrantzi aundiko gertaera.

Nik uste, gal on ez diogula bea aifako aforlarik ematen. Alegintxo bat egin nai nuke, irizti nastu betzuek garbitzeko. Ez, ordea, nere kabuz eta nere gisara: Eliz-Batzar Nagusiaren Itze, balizki. Ain zuzen ere. «Kristau-etziera» gal artuta egin zuan atortepen dakarrenez: Ea erakutsi gottar oien argira, arazoa garbieto agertzen dan.

EZIERA-ESKUBIDEAK

«Edozein arraza, bizi-malla eta adinetako diralarik ere, gizaki guztiak dute galdu —ezifnezko eskubide persona diranex— eziera irixteko; baña ez nola-nalako eziera: beren elburueri, bakoitzaren izakerari eta gizonezko naiz emakumezko izateari erantzungo dien eziera: beren gurasoengandiko kultura eta lege-zarrei dagokiens; eta, aldi berean, egizko batasuna eta pake lur-gañean indartu ditzen, beste erriekiko artu-emanetara sendeikori irikia izango dan eziera». (1).

ESKOLA

Eskubide dutenez, guztiak zor zaien eziera orri lortzeko biderik egokiena, eskola degu. «Aurtxoan eziera emateko ura guztiaren artean, biderik garrantzikoena, eskola da: bere egitekoari dagokionez, eskolak ezitzen bait-ditu buru-alimenak; zuzen irizteko gal egiten ditu gizakiak eta aurreko oizaldiek emari diguten kulturaren ondasunoz jabetu-arazten bait-ditu». (5).

EGINKIZUNA

Askok uste dute, erriaren egiteko dala umeen eziera. Beste askok, Estaduen eginkizuna dala, Eliz-Batzar Nagusiak, berriz, onela erakusten du.

Lenengo, gurasoak: «Gurasoek, beren seme-alabei bizia eman dieten ezker, bere-beartuta daude eziera eman dezaieten; orregatik, gurasoek berak dira ezitzailek beartuenak eta lenengoak». (3).

Bigarren, tarteak alkatetik: Bigarren mallan, gurasoen laguntzaile-bezela, giarte osoa dago eziera-lanera beartua, ari alkatete txikiak eta aundietarano, mallan-mallan. «Eziera eman bearra, lenen-lenengo sendieri dagokio; baña bearezkoa du gizarte osoaren laguntza» ... «Gurasoen eta beste alkateten alegifiek lortu ezin dutena, Estaduek osatu bear du, baña gurasoen gogoak aintzatzat artuaz». (3).

Irugarren, Estadua: Gurasoek eta tarteak alkatetik berez dezaketena, beren esku geldituzkoa da beti. Auek ezin dutena, orri da Estaduren egitekoa. «Gurasoen eta ezitzaile-lanean ari diran guztiaren eginkizunak eta eskubideak gañetik zaitzea dagokio Estaduari; aiei laguntzea eta aien lanak osotzea». Au da, izan ere, latifizier dion «subsidiarii principium» edo «laguntzarako ordokaritzea». (3).

Laugarren, Eliza: Elizak ere bai-ditu eginkizun eta eskubide eziera-gai-etan. «Elizari arrazoi bereziz dagokio eziera ematea; ez ordea, eziera emateko gai giza-alkarte daleko bakarriki; gizaki guztiak osasun-bidea erakutsi bear dielako, baizik». — «Ama dena, bearturik dago Eliza bere seme-alabei. Kristo'ren espritutz betekio dituan eziera ematera; eta, aldi berean, erri guztiak laguntzen die Elizak, personak, dagokien maila osora jaso dituzten». (3).

ESKUBIDEAK

Eginkizun aundiak ezetzki, ba-dituzte gurasoek beren eskubide jatorrak, besteren bizkar utzi ezifnezkoak. «Gurasoek, seme-alabei eziera ematea duten ezker beren lenengo eta utzi-ezifnezko eginkizun eta eskubide, bearezkoa dute eskolak aukeratzeko askatasun oso-osoan». (6).

Geiago oraindik: laguntza eta erreztasunak eman bear zaitzike gurasoek beren eginkizun bikainak ondo bete ditzen. Bi erakto laguntza izendatzen ditu Eliz-Batzar Nagusiak: erri-laguntza eta eskolak aukeratzeko askatasuna.

«Erri-agintaritzak, bere egiteko, erriatzen askatasunak babestu eta zaitzea dunez, zuzenbideari dagokionez banatu bear ditu erri-laguntzak: gurasoek, beren barnak agintzen diten neurrian, beren umeentzat eskolak aukeratzeko askatasun oso-osoan izan dezaten eran». (6).

Ez da, ordea, Eliza bakarriki, askatasun eta aukera-bide ontatik garamazkiana. Nazio Alkatuek ere «Giza-eskubideen aldeko aitortepen» orri bere eskatzen dute. Onela dio 26'gn, arauak: «Persona dan guztiak du eskubide, eziera irixteko. Eskola-etziera, gutxienez ifarriko edo lenengo mailan, uts-utsen eman bear izateko. Danak bearturik daude, lenengo mallako oiñari-etziera au artzera».

Arau beraren 3'gn, atalean: «Gurasoek dute, bestek baño lenengo, beren aurretzat nai duten eziera-mota aukeratzeko eskubide».

NI "H" - AREN PEKATARI?

Beti pentsatu dut, euskeraren batasunerako, «H» letarren gora-bera ez dala garrantzitsuena. Baña, gure artean, badirudi auzi orri euskeraren il edo bizkioa edo dala. Kontu onetan, neretzat, bein betiko arabagi zeatz bat artu bearrekoa da, erabili edo ez erabili jakiteko.

Baiañ Nemesio Etxaniz-ek, Z. ARGIA 290-garren zenbakian «H»-ari buruz egin duan artikuluan, letra onen alde burrukan ari diranekin buruabat egin nau. Aspalditik, kontu onetan nundik jo ez dakienetakoa banaiz ere. Koru batok oso gaizki ematen du bakoitzak bere erara kantatuz, eta, bestela ere kantari txarrak geranik, geinek in bat joa-tea gura genduke. Au da, eskaldun-iki geinek in. Batasuna euskalkirik geinek in pentsaturik, eta ez batzue-kin bakarrik.

Ditudianez, Etxaniz-ek mugaz emendikoekin bakarrik egin nai du. Bere artikulua irakurteak Zakarias Bizkarraren **Vasconia Españolisma** dakar nere burura. Arek ere Euskal-erri erdi besterik ez bai zuan ikusten. Eta nere gogozko batasuna ifungo sasi-mugaz berezitu gaubea da.

Izan ere lotsagarria da, XX-garren mendea aurrera eta, guk, eskoleta-ko liburuxkak ere euskalki bakol-tzari berea egin bear.

Bidasoz bestaldekoarena ez da Etxaniz-ek kontatzen duan bezala, ezta gutxiagorik ere. Ura ez egoen «H»-aren kontra. Ark esan zuan, gu-rrer artean iskanbillak sortzeko be-terik ez bada, uzteko. Baña, gure artean iskanbillak, kontu orretan, as-paldi sortuak dira. Bidasoaz emen-diko asko dira «H»-ren alde, eta an-dikorik inor ere «H»-ren kontra. Au da errealdide bakarra.

Etxaniz, erreskionarioen lurrunez dator eta orri ez da biderik egokiena erazolarren bila joateko. Txit egoki ari da batasunik ezaren alderako.

Geiago edo gutxiagoren artean ez daude errazoi guztiak. Bestela, demokraztaren izenean euskera utzi eta erdera artu bearrean gaude, gu-rrer erri barnean bertan erdeldun eta erdelazko geiago dalako. Baña ideal-ak zentzuz eta sentieraz bear du ifnoiz maloria izango bada (gañera ni ez nago ain seguru Euskalerriko maloria «H»-ren kontra dagoana), bai Kristok eta bai Marx-ek orrela pentsatu balute beren ideak ifnoiz ez zuten geitensuenen arteak inda-rrik izango. Demokrazia gauza bat

da eta denboren aurrerapenak be-renkin dakarten eboluzioa beste gau-za bat. Gaur euskera ifnoiz baño geiago azagutzen da. Onetarako euskalkirik euskalkio estudioak bear izan dira eta estudio oiek bear dute izan batasunaren oiñarri. Best-alde, denbora guzietan erabili dan idazkera dala.

Zenbaitsek izkuntzaren dako kon-dizio estu batzuek aurrez jarriak di-tuzte eta bide orrietatik ez da posi-ble jokabide garbirik.

«H» bereizten ez dakitenak ari di-ra «H»-aren kontra. Zer izango litza-ke «Z» eta «TS» bereizten ez daki-gun Bizkai aldekoak auen kontra as-ko bagifia, ordez «S» eta «TZ» era-biltzeko eskatuz? Eta, «Z» eta «TS» bereizten dakitenak erakultu bear badigute nun eta zelan bear duan, zergaitik ez «H» bereizten dakite-nak beste orrenbeste? Gañera, da-gigularik aiek «H» orri beztzuro ezi-nezkotzat dutela? Eta, gañera, «H» orri ez aal da guk galdutako letra?

Txillardegi, ni eta Jakin aldikarri-ko taldea izan gerala «H»-ren alde atzera geranak? Eta gure ondoren ga-zer-talde bat? Ain gazte ez diran mugaz emendiko idazle askok era-bili izan dute «H»-a. «Orlex» berak erabilia bere **Barne-minetan** libu-ruan, eta zenbait lanetan Labayen, Erkiaga, Monzon, Arkotxa, «Oskilla-ko» eta beste batzuek. Leenago La-ramendin, Mendiburu eta Mogel-ek.

Baiañ, Nemesio Etxaniz-ek bai al dakit San Millán de la Cogella-ko kartularioan Arabako euskal izenak eta zenbait euskerazko itz «H»-rekin agertzen dirala, gaur mugazandikoak erabiltzen duten bezala? Guk aspeldi galdu genduan «Z»-ren gisa be-rran galdau ez oite dugu «H» orri? Eta orain bata zaldtu bear bada, bestea zergaitik ez?

Euskerazko leendabiziko liburu-a, Etxeparek, «H»-z idatzi zuan, 1945-ean: 1596-ko **Refranes y sentencias** ere «H»-z arkitzen da; Landucho-k 1562-an egin zuan Bizkai aldeko iz-tegiek «H»-ak ugari dauka; Or ba-nik ez nien esan eleri beren lan-ak «H»-z idatztekorik, baña ala egin zu-ten. Agure zaar «zazpikiak» aiek.

Sarsitzun eta Errokanin bizirik ar-kitu nuan letra orren funtsa. (G)an, (g)ura, (g)oben, batean; (k)an, (k)ura, (k)emen, bestean. Beraz, mugazandua ez da ain mugazandua. «H»-a kentzea baño errespetatzea ez aal da errezagoa? Nik baitzat du-darik ez dukat «H» erabiltzen ikas-

tea askoz ere errezagoa dala Biz-kaik aldekoentzat «Z» eta «TS» era-biltzen ikastea baño. Esperientzi-az dakidan gauza da. Kentzea azkena da. Orretarako beti izango denbora. Arduratu gaitzen asokuntzein, eba-kuntzak egin baño laen. Mutlazioak euskera albarrizteko dira-te.

Euskera idatzieren batasuna leen-go aldir jendearen aurrean (idaz-lezen gurrean) erabakiak artzoko Balonakoa izan zuan, 1964-an. Ni era-z ez nintzan joan, baña erazakiekin, atzera zuten orrietatik dakit mugazand-ikoak emengo ortografia amor-eman zutela guk beren «H» orri be-rrerako zua tokietan erabiltzaren or-dez. Askok entzun gor egingo zuten eta beste askoren bearristaria eldu ez. Bigarren aldir Ermuen, aurten, eta «H»-ren alderako errazoi geiegi-rik ez bazen ere, kontrako argumen-turik bateraz. Baña ura zuan gauzak azzaltzeko unea, orain Arantzazukoan izango dan bezala.

«H», euskerak, berea duena ez dago dudarik. Literatura euskeraren batasuna euskera idatzian eta ora-indik bizirik dauden euskalki guziki aintzat arturik izan bear du, eta bi-zirik daudenetan erabiltzen da ora-indik «H»-a. Beraz, kentzeko, era-zoi aundiak bearko dira. Eta eraba-kitzen dana erabakitzen dala, gertu nago batasunerako bidetik jarraitze-ko.

«H» bai... «H» ez, ez da asko ajo-lai zaldan gauza.

JUAN SAN MARTIN

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO IURRIA ASTIAZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goko Kaputuinoak argitaratua

(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'N:
Oquendo, 22; Telef. 26666

ARPIDE-SARIA:
Urteko 190 Pta.
Atzerrian 265 »

Aldez artu nai bada, galdetu.